

EUSKALKIAK ETA BATUA



Xabier Amuriza
Bertsolaria eta idazlea

Gaiari alde askotatik hel dakioke. Nik, beste gabe, neuk zer egiten dudan azalduko dut. Edo zer egiten saiatzen naizen, edo saiatu behar nukeen. Segun non, edo norbera zelan dagoen, lizentziak ere behar baino gehiago hartzen dira. Garbi esanda, lorrinak ere egiten dira. Egun onak eta txarrak izaten diren moduan, egun inkoherenteak ere badira, eta dena sartzen da kalitate aldakorraren gaman. Baina jokalege sendo batzuk nahitaezko dira. Eta, jakina, Bizkaiko euskalkiaz emango ditudan arrazoi- eta jardun-bideak beste euskalki guztietan ere berdintsu aplikatu daitezke.

NON ZER, GEOGRAFIKOKI ETA TEORIKOKI

- 1) Bizkaian bizkaiera. Horretan sekula ez dut dudarik izan.
- 2) Gipuzkoan gipuzkera, euskalki hori, zorionez, nahiko ondo menperatzen baitut. Berdintsu egin ohi dut Nafarroa Gipuzkoatik hurbilean ere, non ohituago dauden (suposatzen dut) gipuzkera entzuten. Eta non, batez ere, bertakoa ez dudan menperatzen.
- 3) Batua, beste guztietan: Iparraldean, Nafarroa urrunagoan, Araban...
- 4) Edonon, euskaldun berrien edo hauen proportzioa nagusi dela suposatzen den publikoetan, Bizkaia barne. Hemen suposamen hori aldatuz joan naiz, edo aldarazi didate. Laurogeiko hamarkada inguruan, Bilbon, Ezkerraldean eta abar, zenbait saio batuan egiten nituen,

euskaldun berrien adeiz. Gero ikusi nuen, eurek esaten zidatelako, maila batera iritsiz gero, euskaldun berriek ere nahiago zutela euskalkia entzun. Ezkerraldean eta beste hainbat erdal ingurutan ere saio asko antolatzen baitzen, antolatzaileei galdetzen hasi nintzen ea batuan ala euskalkian nahi zuten. Gehienetan, euskalkia eskatzen zuten. Garai laster samar batetik aurrera, Bizkaiko edonon hasi nintzen euskalkian kantatzen, berariaz batua eskatzen ez bazuten. Salbuespen bakarra euskaltegiak ziren, non ikasle guztiak euskaldun berriak edo berrigaiak ziren.

5) Txapelketak. Bizkaikoak bizkaieraz. Euskal Herrikoak, batuan. Horretan ere ez dut sekula dudarik izan. Bizkaiko txapelketarik behin bakarrik jokatu dut, baina, dozena bat izan balira ere, berdin egingo nukeen. Euskal Herriko txapelketetan, ostera, batuan egiteko dudarik ez dut sekula izan, nahiz saio batzuk Bizkaian egokitu. Zelai nazionala denean, hizkuntz eredua ere nazionala behar dut, edo bultzatu nahi dut, eta hori batua da.



BIZKAIERAREN ARAZOA

Lehenik, bizkaiera ez da Bizkaiko euskalkia bakarrik. Araba osoa eta Gipuzkoaren zati handi bat euskalki horren lur dira. Hori horrela, Euskal Herri osoko biztanle erdiak bizkaieraren gainean bizi dira. Halako hedapena izanik,

pentza zitekeen euskalki horrek sendotasun handia behar zuela bere baitan eta bere hiztunen atxikimenduan, baina ez da guztiz horrela izan. Bizkaitarrek errazegi pentsatu dute (motiboak asko dira, noski) gipuzkera, adibidez, bizkaiera baino hobea edo eleganteago dela. Bertsolaritzari gagozkiola, bizkaitar bertsolari askok, eurek halaxe ikasi zutelako eta entzuleek, seguruenik, gehiago baloratzen zutelako, Bizkaian ere gipuzkeraz kantatu izan dute. Eta gero batua etorri zen. Kontua da euskalkiaren abandonoa urrunegi joan zela, eta Bizkaiko txapelketak berriro abiatu zirenetik, laster iritsi zen sasoi bat, non gehien-gehienek batuan edo gipuzkeran egiten zuten. Izan zen Bizkaiko final bat, inork bizkaieraz kantatu ez zuena. Edo batek, gehienez, ez naiz ziur gogoratzen. Alarma piztu zen, Bizkaiko Bertsozale Elkartearen gogoeta aro bat zabaldu zen, eta orduantxe idatzi nuen *Bizkaieraz bertsoan*.

EUSKALKIA ETA AZPIEUSKALKIAK, GEHI SUBAZPIEUSKALKIAK

Euskal Herriko biztanle erdiak bizkaieraren gainean bizi direla esan duguna kontuan harturik, pentsatzekoa da euskalkiaren azpian barietate asko eta handiak daudela. Gauza jakina da, euskaraz, ia etxetik etxeraino gertatzen direla diferentziak, baina hemen eremu handiak bakarrik kontsideratzen ditut, eskualdea ere gainditzen dutenak. Entzuleen euskalkira ondo hurbildu gura duenak aniztasun handiegia aurkituko du. Koka dezagun zehazki aniztasun hori.

Hiru azpieuskalki nagusi daude, deklinabidearen arabera sailkatuko ditudanak, berau baita ezaugarri nabariena. (Sailkapen hau ez da, noski, zehatz-zehatza, handi-handika baizik). Esan beharrik ez dago, deklinabidearen hori bezala, hizkeraren ezaugarri guztiak sistema oso zehatzean doazela, hizkera guztietan bezala.

I) $A+A = EA$. *Zapatea, famea...* Arratiatik Galdakaon zehar Bilboraino, gehi Zeberio, Ugao, Arrigorriaga, Orozko...

II) $A+A = IE$. *Zapatie, famie...* Bizkaieraren erdialdea, Bakiotik Busturialde zati bat, Mugialde zati bat, Lea ibarra, Durangaldea, Debagoienaren goi aldea, Aramaio...

III) $A+A = IA$. *Zapatia, familia...* Deba arroaren erdialdea, Bergara, Soraluze, Eibar... Elgoibarren eta Mendaron, bizkaiera zerbait itsasten zaio gipuzkerari.

IV) Azkenik, badira beste bost subazpieuskalki, eremu zabala hartzen dutenak:

1) EA sistemaren azpian, bi:

- EA = É: *zapaté, famé...* Mendebal Txorierri (Zamudio, Derio, Sondika, Loiu...), Mungia eta Mungialde zati bat, eta Uribe Kosta.
- EA = IA (*zapatia, familia...*), baina: *begie, astoa, burue...* (Lezama,

Larrabetzu, Zornotza zati bat...).

2) IE sistemaren azpian, hiru:

- *Zapatie, famie...* baina: *zoroa, astoa...* (Zornotza, Etxano, Muxika, Gernika-Lumo, Foru, Mendata, Arratzu, Morga, Errigoiti, Mungialde zati bat...).
- *Zapatie, famie...* baina: *zorue, astue...* (kosta inguruko Busturialdea, Lea ibarra, Durangaldea, Debagoienaren goi aldea, Aramaio...).
- *Í: zapatí, famí...* (Artibai ibarrean, Bolibar, Markina, Etxebarria, Berriatua...)

V) Azkenik, herri batzuk nolabaiteko irlatzat ere jo daitezke: Bermeo, Lekeitio, Ondarroa, Oñati, Otxandio... Hauek guztiak, nahiz azpieuskalki baten barruan hartzekoak izan, ia azpieuskalki bat gehiagotzat hartzeko beste berezitasun daukate.

Ikusten denez, bizkaierako hizkera ezberdinetara jaitsi nahi duenak oihan zabalegia aurkituko du, non, sarritan, sistema batetik bestera alde handiak dauden. Nik neuk EA eta IE azpieuskalkiak menperatzen ditut. IA sistema ere baietz esango nuke, baina kontzentrazio handiegia beharko nuke, bat-batean lasai kantatzeko. É eta Í subazpieuskalkiak ez ditut ondo menperatzen. Eta are gutxiago irlatzat jo ditudan Bermeo, Lekeitio, Ondarroa, Oñati, Otxandio... herrietakoak. Hala ere, zailtasun guztiak gainditzen dira, denean ahalik euskalkirik jasoena eginez, egin behar dela uste dudana bezala, normalean behintzat.



ZER LITZATEKE BIZKAIERAZ EGITEA?

1995. urte inguruan, bizkaieraren abandonoa urrunegi joan zela ikusirik, Bizkaiko Bertsozale Elkartearen gogoeta aro bat zabaldu zen, gorago esan bezala, hitzaldiak eta ikastaroak antolatuz. Astiro-astiro, norabidea aldatzen hasi zen, eta gaur egun Bizkaiko bertsozaleek euskalkia geroz gehiago eta normalago darabilte. Azken batez, hain zaila ere ez baita hizkera bat maila jasora eroatea. Egokitze prozesu txiki bat besterik ez da behar, norbere berezko hizkera bera baita egokitu nahi duzuna. Orduantxe idatzi nuen *Bizkaieraz bertsoan* izeneko liburua. Bertan, bizkaiera egitea hiru ildo nagusitara biltzen zen.

1) Aditza. Ez dago dudarik aditza dela bizkaieraren (eta edozein euskalkiren) ezaugarri nabariena.

2) Bizkaierazko berbak bizkaierazko forman edo aldaeran: *hatx, urten, barik, bako, gitxi, bakotx...* Hauek, noski, ez dira beti euskalki osokoak izaten. Hala, adibidez, *haitz, gutxi, gabe, erten...* bizkaieraren alde batzuetan naturalak dira.

3) Euskalki barruko berbak. Euskalki guztietan bezala, Bizkaian ere berba asko dira bertakoak bakarrik: asteko egunen izenak (*martitzen, eguazten...*), *aitita, amama, izeko, neba, berba, gura, gomuta, gogaitu, ostendu, jausi, beilegi...* Aipatu liburuan hiztegi oso bat dator.

ZER BATUTIK BIZKAIERARA?

- 1) Deklinabide batua. Jardunaldi haietan sortu zen kezka nagusia deklinabidea izan zen. Irizpide nagusi (eta salbagarri) bezala, askatasuna onartu zen bizkaieraz ere deklinabide batua erabili ahal izateko.
- 2) Euskal hiztegi guztia. Bizkaierazko hitzak lehenesteak ez du esan gura beste euskaretako hitzak ezetsi behar direnik. Euskal hitz guztiak dira denonak. Eskatzen den bakarra da nahasmen premiagabeak ekiditea.

PRAKTIKAN ZER EGIN?

Onena eta seguruenak bizkaiera jasoa da, nonahi eta noiznahi. Deklinabide batua ere geroz onartuago dago. Azpieuskalkietara jaisten hasiz gero, sistema bati osoan jarraitzeko gai izan behar da. Bestela, lorrina eta zabarra besterik ez da zabaltzen. Eta, jakina, hurbiltasuna lortzeko asmorik sanoenean ere, sistema bakoitza bere lekuan aplikatu behar da. EA sistemaren eremuan, adibidez, desegoki litzateke IE erabiltzea, edo IA eremuan É subazpieuskalkia.

Horrek ez du inondik ere esan nahi noizbehinkako gurutzaketak eta lizentziak egokiak ez direnik, efektu bat lortzeko bada. Baita errimaren abantailak